



❖ ABESBATZAK Parrokiko koruaren kontzertua bihar

Parrokiko koruaren kontzertua izango da bihar Agustinetan. Herritar guztiak daude gonbidatuta. Bihar 17:30etan hasita. ||

❖ GAZTE ASANBLADA Truke azoka bihar

Truke azoka izango da bihar Gudarien plazan, Gazte Asanbladak antolatuta. Opariak eskuratzeko beste bide batzuk badaudela erakutsi nahi dute. Goizeko 11:00etatik eguerdiko 14:00etara. Herritarrek animatu dituzte gauzak eramatera. ||

❖ UDALA Gobernu batzarra

Gobernu batzarra izango da gaur udaletxean. Etxeberri auzoa urbanizatzeko eta Goiz Eguzkiko bolatokia estaltzeko proiektuaz hitz egingo dute. Partikularrek egindako hirigintza eskaera eta kontsultak ere aztertuko dituzte. Eguerdiko 14:00etan. ||

❖ FUTBOLINA Garineko partidak


Futbolin partidak izango dira gaur ere Garin tabernan. Bikote guztiei agertzeko eskatu diete. 19:00etan hasita. ||

Olentzero etorriko da bihar eta Kaxkoan eta baserriz baserri ibiliko da

Arratsaldeko 15:00etan, herritar talde bat abiatuko da Plazatik Olentzerorekin batean baserriz baserri ibiltzera. 18:00etatik aurrera, Kaxkoan barrena ibiliko da Olentzero.

OLENTZERO Hernaniko bi-dean da eta bihar iritsiko da Hernanira. Herriko talde ezberdinak ari dira prestatzen ikazkinari behar bezalako harrera egiteko eta bi deialdi izango dira: alde batetik, baserriz baserri ibiliko dira, eta bestetik, Kaxkoan barrena.

Olentzero baserriz baserri
Herritar talde bat, urtero bezala, baserriz baserri ibiliko da. Arratsaldeko 15:00etan egin dute hitzordua, Plazan. Handik Zikuñaga eta Osiñaga aldera abiatuko dira, herriko bertsolarien eta musikarien laguntzarekin. Tartean sagardotegiren bat edo beste harropatuko dute, eta trago eta mokadu bat egiteko aukera izango dute, eztarria erabat ez lehertzeko.



Olentzero, haurrez inguratuta, iaz Hernanira etorri zenean.

**Olentzero karrozan
Kaxkoan barrena**
Bestalde, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Olentzero Kaxkoan barrena ibiliko da, ka-

rrozan. Bi karroza izango dira, bata Olentzerorentzat eta bestea euskal mitologiaren inguruan girotuko dute. Karrozei lagunduz, Ttarla dan-

tza taldeko 200 bat lagun izango dira, baita Musika Eskolako trikitilari eta banda ere. Kale buelta bukatzean, gerturazten diren haurrak agurtu-

ko ditu Olentzerok eta haien eskariak entzungo ditu. Kale buelta aurretik, arratsaldeko 16:00etan Olentzero Zaharren Egoitzan izango da. ||

Ozenki abesbatzak eta Musika Bandak Milagrosa bete zuten

UDAL Musika Banda eta Ozenki abesbatza elkartu egiten dira urtero sasoi honetan, Gabon kantuen emanaldia egiteko. Larunbatean ere ez zioten hutsik egin aurtengo zitari, ezta herriko musikazaleek ere, Milagrosa jendez bete baitzen. Kontzertu-

tuan zehar izan zen momentu berezirik, izan ere, Jabier Amenabar eta Ainhoa Pinedari lore eskaintza egin zieten. Biak ere Ozenki abesbatzako kideak dira eta arrazoi ezberdinengatik egindako lana errekonozitu nahi izan zieten. ||



VGALDET XO Jatetxea
**Bazkariak
eta
Afarlak**
Epelezu auzoa. Tel.: 843 66 02 40. 20120 HERNANI (Gipuzkoa)

AITAN-ETXE
TABERNA
ASTEBURUETAN AFARIAK
Larramendi, 15
Tel.: 943 55 00 46

mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak
Tel. 649 846 422 - 20.120 HERNANI

TELEFONAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● Egunez: Etxebeste Elkano 2 - 943 552087 ● Gauez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Laino gutxi izango da zeruan, nahiz eta goizean behe lainoa izango den. Temperatura minimoak jaitsi egingo dira. Maximoa: 12 °C. Minimoa: 3 °C.

BIHAR Bihar ere eguzkia izango da nagusi. Temperatura minimoak jaitsi egingo dira. Maximoa: 12 °C. Minimoa: 1 °C.

(euskalme)


Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

PEDRO MARI GOIKOETXEA ELORZA
'TAPATXULOS'
HERNANIKO EZKER ABERTZALEA
Hernanin, 2008ko abenduaren 23an



PEDRO MARI GOIKOETXEA ELORZA
'TAPATXULOS'
AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUA
Hernanin, 2008ko abenduaren 23an



PEDRO MARI GOIKOETXEA ELORZA
JAUNA
'TAPATXULOS'
Herenegun hil zen 66 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta
- Goian Bego -
Emaztea: Isabel Pascual; seme-alabak: Pello eta Carol; biloba: Manex; anal-arrebak: Jose Luis eta Ana, Maite eta Segundo, Angel eta Pepa, Manolo eta Feli, Valentina (Rafaelen alarguna), Ramiro eta Julia; osaba-izebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2008ko abenduaren 23an
Helbidea: Kardaberaz, 4 - 1. Ezk.
OHARRA: Gorputza HERNANIKO ORBEGOZO EHOZKETA TANATARIOAN goizeko 10:00ak arte egongo da.




PEDRO MARI GOIKOETXEA ELORZA
'TAPATXULOS'
(Txantxangorriko bazkidea)
TXANTXANGORRI ELKARTEA
Hernanin, 2008ko abenduaren 23an



PEDRO MARI GOIKOETXEA ELORZA
'TAPATXULOS'
Ez niri agur esan gero arte baizik.
Elutxetako familia guztia eta Kepa, Jone, Aritz eta Urtzi.
Hernanin, 2008ko abenduaren 23an



PEDRO MARI GOIKOETXEA ELORZA
'TAPATXULOS'
Enbor beretik sortuko dira besteak.
PELLOREN LAGUNAK
Hernanin, 2008ko abenduaren 23an



IRAGARKI MERKEAK

Alokatzeko: Pabiloi industrial berri-berria. 150 m2. Poligonoa: Txalaka Araneder (Astigarraga). 943 33 05 16 (20:00etatik aurrera).
Etxe berria estrenatu ezazu, hemendik 18 hilabetera, 2 logela, aszensora, 60m2 (249.000euro). Deitu: 671 124 594.
Etxeko konponketak egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamura, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).
Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalatuak. Gaztetako tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Antiacne tratamendua, "Manchas". Plataforma bibratzailea. Atzieta 2, behe. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76
Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)



BALANTXA



ANTZIOLA, 12 943 576115 HERNANI NAGUSIA, 17 943 334022

-%3 **PREZIO BERRIAK**



NESPRESSO KRUPS ESSENZA AUTOMATIKOA
159 € - 50€-ko TXEKEA OPARI



NESPRESSO KRUPS ESSENZA MANUALA
129 € - 50€-ko TXEKEA OPARI

MP5




3 URTEKO GARANTIA

PREZIO HOBERENAK

MERKEAGO AURKITZEN BADUZU PREZIO HORRETAN SALDUKO DIZUGU